

genezaken diru pilaren beñiya ere bai. Ontzat eman du Euskaltzaindiak agerbide auxe.

II.—Lakonbe jaunak Duronea apezaren eliz-liburu bat irakurri ta aztertu du. Bertatik ikasbide asko atera ditu, bai euskal-itzañi bai aditzari dagozkiyonak.

III.—Eguskitza jaunak bila ta bila dabil non idoro euskal-itzañi berri edo eskutuak Iztegiyari ezartzeko. Oraingoz *Kresala* Agirre zanaren irakurgaya ongi aztertu du.

IV.—Aita Intza'k beste euskaltzañien laguntza eskatzen du Dotriñan datozen galdera ta erantzunai bear dan argiyen ta eraxenen idazteko.

V.—Lakonbe'k irakurri dizkigu Bonaparte ta Intxauspe'ren arteko eskutitzak.

VI.—Azkue'k beriz oraintxe idatzi duen bere irakurgai *Latsibi*. Berak ez daukala elestari izateko gogorik-eta edozeñi eskeñiko liyoke argitaratzea.

Ta beste gairik izan ez-ta amaitu da batzañaldi au oiturazko otoitzez.

---

### Iruña'n, Aldundi-Jauregian, 1927'ko Otsaila'ren 24'an.

Euskaltzain jaun abek batzañaldira datoz: Azkue, Kanpion, Urkijo, Landeñetxe, Olabide, Intza, Intzagarai, Lakonbe, Etxegarai ta urgazletatik Irigarai Fermin jauna.

Otoitzez asi da batzañaldia.

I.—Napañoa'ko *Euskeraren adiskideak* agur egin nai liyoke Euskaltzaindiari. Onek bigar amabiterdientan abegi egingo diyo batzañaldiko gela ontan.

II.—Ormaetxea jaunak Euskaltzaindiari dasayo: Iztegi beñiyaren itzen bilketa dala-ta, askok bialtzen

dizkiyotela itz-irakuñi ezin diranak; beste batzuek, len argitaratutakoak; beste batzuek beriz Azkue'ren Iztegian daudenak: adierazi bear zaye bialtzaileai ez dezatela alpeñikako lanik egin ta emandako arauz, beren lana datorkigula.

III.—Kampion jaunaren eskabidez ta Euskaltzaindiari ongi iritzi-ta Urgazle izendatu degu, euskeraren alde ainbeste egiten duen Migel Intxaufondo jauna.

IV.—Olabide jaunak esan digu: Azpeiti'ko misiyotan, Aita Agiré'k euskerazko dotriña-ikasbidearen alde'z itz egin duela, esanik, naita naye'zko garatza dala, euskeraz erakustea, euskera besterik ez darabilkiten umeari. Euskaltzaindiaren txaloak aita Agiré'ri.

V.—Azkue jaunak *Epéntesis* dala-ta, idazki bat irakuñi digu: iru atal ditu lan onek; *epéntesis*: de *composición—de declinación—de conjugación*. Gero diyo, sartaldeko euskera, lenbizikoz, osatu bear litzakela; bañan Urkijo jaunak erantzun diyo, ez dala orixe akets eta eragozpen gabeko arazoa ta gerorako uzteko.

VI.—Urkijo jaunak, antziñabo idazkiyetan itz abek idoro ditu: *txaginar, aragoa, aizearka, lixa, negila, gabitegi*: Itz abek Euskaltzaindiak aztertu ditu.

VII.—Aita Intza'k Goizueta ta Aranoa'ko aditza irakuñi digu.

Ta beste gai batzuek bigaramonerako laga-ta ototzez amaitu da batza'aldi au.

---

Iruña'n, Aldundi-Jauregian, 1927'ko Otsaila'ren  
25'an.

Aur'eko batza'aldian aipatu diran euskaltzain jaunak eta urgazle bera bildu dira ta ototzez asi da batza'aldia.